

IKASLE BORROKAZ ALEXIA GAINDITU DUGU!

Kurtsoa bukatu eta badugu zer helarazi. Izan ere, datorren kurtsora begira zenbait ikaspen atera ditzakegu, borroka molde berriak martxan jartzen aritu ostean hauen baliagarritasuna frogatu dugulako.

Ikasturte hasieran, oporretatik bueltan ginela, iaz martxan jarritako web plataformako jardueran berritasunak aurkitu genituen ikasleok, Alexian alegia, komunikazioa hobetzeko tresna omen zena, itxuraz neutrala. Ikasleoi ez zitzaigun inongo momentutan aldaketa horiek ea zer iruditzen zitzaigun galdetu eta, ondorioz, hasieratik pairatu genuen Alexiaren erabilera.

Urriaren 12ko Herri Eskoletan aukera izan genuen gaiaz eztabaidatu eta Alexiaren atzean zer ezkutatzen den aztertzeko. Berandu iristea, etxeko lanak ez egitea, klasean hitz egitea... betidanik egin zaigu errieta jarrera hauengatik, klasean diziplina konkretu bat jasotzen baitugu (gerora lanpostuan produktiboak izan gaitezen). Alexiari esker, jarrera hauek gurasoei zuzenean helaraztea ahalbidetzen da, momentuan, ikasleok bitartekari papera galtzen dugularik.

Alexia kontrol mekanismo bat da, komunikazioa errazteko balio duena, bai, baina irakasle-guraso arteko komunikazioa, ikaslea ekuaziotik kendu eta subjektu izatea aitortzen ez diona, objektu soila bihurtze prozesuan urrats bat gehiago emanez. Bestetik, beldurra txertatzeko funtzioa ere badu, auto-errepresioa martxan jartzeko balio duena. Honengatik guztiagatik, Alexia ikasleon interesen aurkako eraso bat da. Herri Eskolak pasa eta hurrengo astean asanblada deitu genuen, erasoaren aurrean zer egin erabakitzeko, eta gure hautua, pasotismoaren aurrean, autodefentsa artikulatzea izan zen. Horrela sortu zen AIAS, Aiaraldeako Ikasle Autodefentsa Sarea.

Hasieratik ulertu genuen Alexia urrats bat gehiago baino ez dela izan, hau da, sistema kapitalistak sumiso nahi gaitu, eta erasoak uneoro pairatzen ditugu ikasleok. Alabaina, nonbaitetik hasi beharra dagoelako, Alexia etetea izan zen gure lehen erronka. Lehen pausua zuzendaritzari azalpenak eta Alexiaren etetea eskatzea izan zen. Ez genuen inongo erantzunik jaso. Hain erreza izango ez zela ikustean hurrengo hilabeteetara begirako plangintza diseinatu genuen. Lehenik, kanpaina bat abiatu genuen gaia hedatzeko asmoz, Alexiak benetan suposatzen duena argi esanaz. Neguko oporren aurretik erantzunik jasotzen ez bagenuen, beste era batean entzunarazi beharko genuen gure ahotsa. Zuzendaritzak ordea ez gintuen aintzat hartu eta haien erantzuna anbiguotasunean eta baloia kanpora botatzean oinarritu zen: ez zekitela, ikusiko zutela...

Urtarrilean gogor itzuli ginen klasera, gure egoeraren berri emanez publikoki. Gainera kontzentren, mobilizazioen, paroen... bitartez zeharo aldatu zen zuzendaritzaren jarrera. bat batean haiek ziren gure atzetik zetozenak biltzeko eskatuz. Borrokak bere fruituak eman zituen. Alabaina, zuzendaritzak bere burua biktimizatu eta gurea kriminalizatzeko saiakera egin zuen, gure borrokari zilegitasuna kendu nahian eta horrek jende batengan zalantzak eragin zituen. Orain, perspektibatik begiratzean, bai aldarriak eta bai moldeak zuzenak zirela ikusi dugu, baina hain indartsu hasi izanak, hasieratik borrokan geundenok soilik irautera eraman gintuela erakutsi digu. Borroka prozesuak berak bere baitan borrokaren zentzua transmititzeko helburua izan behar du, zapaldu orok gure gain har dezagun borrokaren beharrezkotasunaren kontzientzia.

Horren ostean, hautsak hain harroturik zirela ikusirik, lasaitasun tarte bat uztea erabaki genuen, borrokaren nolakotasuna birplanteatzeko baliatu genuena. Bitartean ordea, irakasleek Alexia erabiltzeari utzi zioten ia-gutziz. Bere logikarekin hautsita zegoela konturatu ginen. Adibidez,

berandu iristean Alexian apuntatzeari utzi zitzaien: “benga, sartu barrura” batekin jaso eta gurasoak zuzenean abisatzetik gurekin zuzenean hitz egitera pasa ziren. Honek ostera Alexiaren indargabetzea ekarri zuen, jadanik ez duelako infantilizatzeko, beldurra sortzeko eta subjektu bezala ezeztatze balio, edo beste hitz batzuetan esanda, bere funtzio diziplinatzailea ofizialki ez dagoelako aktibo.

Ikasleok subjektu gisa aitortuak izateko oraindik ere bide luzea dugu, infantilizazioak klase-dominazioaren dispositibo gisa jokatzen duen heinean, kapitalismoa suntsitu arte ez gara berataz libratuko. Era berean, azpimarratu nahi dugu aurrerapauso hau ez zela inondik inora gertatuko, ez balitz ikasleoneko auto-antolakuntzaren eta borrokaren bidez. Honi gehitu nahi diogu borroka honen bidez argi erakutsi dugula ikasleok Euskal Herri osoan zehar antolatzen ari ditugun autodefentsa sareek zapalkuntzaren aurka altxatu ahal izateko eta emaitzak lortzeko mekanismoak direla eta ez, beste batzuek hedatu nahi duten bezala, *jaleoa eta klasea galtzeko* Baterajotze Nazionalak deitzeko aitzakia. Ikasle mugimenduak aurrerapausu handiak ematen ditu azken urteetan, ikasleen benetako beharrezanean helduz eta hauei erantzuna emateko baliabideak sortuz.

Amaitzeko aurrerantzean irekitzen zaigun bideari eusteko beharrezkotasuna adierazi nahi dugu. Esan bezala, hau hasiera besterik ez da izan. Alexia indargabetzea lortu dugu, bai, baina kapitalak uneoro behar du produktibitatea handitu, eta horregatik ondo dakigu erasoak ez direla etengo eta gure auto-antolakuntzan sakondu egin behar dugula, elkarrekin indartsuagoak garelako. Autodefentsa sareek eguneroko arazoei aurre egiteko gaitasun geroz eta handiagoa joan behar dute metatzen, eta bide horretan goaz, pausuz pausu, akatsetatik ikasiz, ikasleoneko interesak defendatzeko borrokan jarraituz, irabazteko helburuarekin antolatzen baikara. Esan bezala, hau pausu bat besterik ez da izan Aiaraldeko ikasle mugimendua antolakuntzaren balioetan hezteko eta helburu zein proiekturik ez duten jarrera oportunisten aurrean, egunerokotasunean borrokaren zilegitasuna aldarrikatzeko. Azkenik, ikastetxeko borroka bestelako borroka esparruekin harremantzeko beharrez kontziente gara, elkartasuna antolatzen duten esparru zein antolakunde ezberdinekin helburuak lortzera bidean. Hori dela eta, borroka honetan babestu gaituzuen guztion garaipena da hau. Ikasturtea bukatu da jada, baina horrek ez du esan nahi borrokatzen jarraituko ez dugunik, gogotsu gaude eta bueltatuko gara. Autodefentsa antolatzen jarraituko dugu ikas baldintza hobetuz alde.

GORA IKASLEON BORROKA!
GORA LANGILEON AUTODEFENTSA!
GORA KLASE ELKARTASUNA!
JO TA KE IRABAZI ARTE!

